

Gure industri ta jakintza-maila

EUSKALERRIAN lantegiak estali ber digute lurra. Arro gaude kanpokoel erakusteko ta gure artean eronka jotzeko gure industriaren indarra ikusita. Erri koxkorrenetan soroak galdu ta lantegi berriak sortzen saizkigu.

Jakintza aldetik begiratzan ba-degu, ostera, extegu alako aizerik. Gure «kultura», industriaren aldean atzera gelditzen da. Dirua sortzen duan kamioi zar batek, tornillo-lantegi batek, askoz estimazio geiago du gure artean, ikastetxe aurreratu batek baino.

Ikusi izan ditugu kaletan aur erri betzuek, burua azi ta azi ta gorputza txiki gelditzen zaienak. Alde guziak berdin ez aunditze arek osasuna galtzen die ta urte gutxi barru galtzen da aien bizia. Orrelakotze itxura arzen diogu nik Euskalerrriaren lantegi ugaltze oni ta jakintza eskas oni.

Gure artean jakitez aurreratua ta jantzia dan gizonak extu laguntzarik. Gizon arek expaitu dirurik sortzen; arek dirua bear du bere lanean aurrera egiteko ta orrelakoei laguntzeko gogorik ezta gure dirudunen artean.

Azkenengo urte auetan ugari dira gure artean irabazi asko exteratu dutenak. Sakela bete dute ta beribil dotoreetan dabilta. Baiña aien buruetan zerbaiz azartzan ba-dezu, jakitez oso ustiak daudela nabaituko dezu. Eta berak jakitez ustiak daudelako, gizon jakintsuei goitik bera begiratzan diete. Aientzako, dirurik sortzen ez dakiana, naiz ta Einstein baino jakintsuago izan, gizonik arloetea da.

Zertako degu onenbeste lantegi, jakintza saillean onen atzeratu irauten ba-degu? Noiz ikusi bear degu Euskalerrri «Fundación March» en antzako eralguntzaren bat jakintzari laguntzeko? Ta zenbat dirudun daude gure errietan, ikastetxeen eta jakintza-bideen kezkarik gabe?

Amalika lantegi-jabe ba-degu millaka pezeta batzuek eman arren beren urteko irabazietan asko igarriko ez litzaiekena. Aientzatu usia litzake urtero diru-laguntza eder bat jakintza-aurrerapenatarako ematea. Baiña gure zoritxarrez, orrelako emallerik ezta gure artean jaitzen. Cambio batek zenbat diru eraldi zuan katalan-izkuntzaren eta ango jakintzaren alde! Alako gizon bat eskatzen diogu zeruari Euskalerrirako.

EUSKALDUNAK ETA ALEMANI ALDEKO LATERRIAK

GOMIKA

Orain dirala bi aste bete Berlin'en nengoa! mutil gazte bati kale baten informazioa galdu nion eta berak neri nungoa nintzan. «Euskalduna» entzun zuanean au esan zidan: «Bai, irakurrita daukat euskera Europa osoan izkuntza zarrena dala. Arrituta gelditu nintzan. Gazte aren arpegiak eta eskuak langille bat salatzen bai zuten. Bi urte bete diru Alemani ta aldameneko laterrietan nabillela eta orren antzeko eskerarik gutxi entzun izan ditut.

Izan ere au gogoan izan bear dugu, naiz ta egi onek miña eman: euskaldunok ezezagunak gerala alde ontako nazioetan. Nungoa naizen galdetzen didateneri neuk apropoz erantzuten diet euskalduna naizela. Geienak txokautu gelditzen dira. «Aus Baskenland?». Beste askok idea oker bat dute. Baskenland (Euskalerrria) Espainia'n bakarrik dagola uste dute. Frantzia'n euskaldunik dagonik eztaite.

Beste batzuk bein edo bein entzun dute Pirineos ondoan, Espainia'ko iparraldian, erri arrunta bat bizi dala: euskaldunak. Baiña gero gauzak nahasten dituzte. Onen antzeko itzak bein baño geiagotan entzun ditut: «Euskalduna zera? Asturias'koa orduan, eh?».

Ia danak dakite «Der Golf von Biscaya» non dagon. Telebision, egualdiaren gora berak dirala ta, sarritan entzuten bai dute. Baiña Bizkaia Euskalerrriaren zati bat danik ez. Azken gerratean maiz abesten zuten:

«Am Golf von Biscaya ein Magdelein stand, ein blonder Matrose hielt sie bei der Hand...»

(Bizkaia'ko izpazterran neskatilla bat zegoan, mariñel ille oridun batek eskutik eltzen dio)

Beste galdera au amaika bidar jalki didate: «Zein da Euskalerrriaren iriburu edo kapitalea?». Euskalerrria kapital bat eta bakarra izan bear dula uste dute, Baviera'k München edo Tirol'ek Innsbruck duan bezela.

Bilbao, Donostia, Iruña izenak entzunak dituzte. Hendaya ere, muga egiten duenez. Ortik kanpora Gernika, gerrate denboran ospatsua izan zalako edo bestela Picasso'k Gernika'ri buruz pintatutako kuadroetaz oroitzen diralako.

Euskaldunen personalidadeaz askoz geiago dakitenik ez pentzatu. Aleman guziak dakiten itza eta iztegi guzietan sartua dagona «Baskenmütze» da: txapela. Bestela Ramuntxo edo orren antzeko eleberrik irakurri dituztenak euskaldun guziak kontrabandistak gerala kombentzuta daude.

«Ezagutzen al duzu euskaldun famaturen bat?». Gutxi izaten dira erantzun egokia ematen dutenak. Eta jakina, oiek Inazio Loyola, Franzisko Javier edo Franzisko Vitoria aitazten dituzte. Oraindik ez dut bat ere arkitu Elkano zein zan zekitenik. Historia'ko puntu ontan alemanak Magallanes'en eriotzetik aurrera ezitira pasatzen.

Eztira gutxi Unamuno entzun edota arein idazkiren bat irakurri dutenak. Alemani'n Baroja ia ez ezaguna da. Baiña bai bata bai bestea euskaldunak ziranik ez dute sumosker ere. «Euskaldunak baziran, zergatik etzuten euskeraz idatzi?». Eta euskaldun askok euskeraz ez jakin edo beñepin idatzi ez dutela egiten adituaz txokautu gelditzen dira: «Orduan zein diferentzia duzute zuek eta gallegoak edo kastellanoak?». Beste gauza batek ere au zabalika usen ditu: euskaldunak millo bat baño geiago gerala entzuteak. Orrenbeste gerialk etzuten pentzatan.

Berriz ere esaten dut: euskaldunok ez ezagunak gerala. Gaurko munduan minori bat ezaguna dedin nazio aundi bat bear du laguntzale ta zaindari. Zer litzake Süd Tirol Austria gabe? Edota Txipre'ko turkoak Turkia gabe?

Bestela ere, euskaldunok mu-

tillak gera lanean, baña propaganda egiteko burua, iniaitaba edo imaginazioa falta zaizkigula airtortu bearra dugu.

Aurten lagun bat etorri zitzaidan eskuian eguneroko bat zuala: «Tiroler Zeitung». «Lesen Sie das, bitte!». Nota txiki batean Espainia'n 1963'go urtean argitaratu ziran liburua jarritzen zituan: «...Katalanez 208, euskeraz 10 (amar) eta gallegoz 6...». Egia ote? Dana dala, ah nolako impresioa artuko nota ori irakurri zutenak: «Au dek erria, au, urte bete an liburu argitaratzen dituan erria!».

Joan zaitetz Suiza', Austria', Alemani', ta Luxemburgo'ko libreria aundi xamarretara eta galdezu: «Ba al dituzte Euskalerrri buruzko libururik?». Bekookia zearo ximurtzen dute: «Au zoroa al zegok? eZin Euskalerrri, Baskenland edo Pais Vasco dek ori?». Eta orduan, asarrea joan dakion galdezu: «Ba al daukazu Katalonien edo Kataluña'ri buruz zeezer?». Irri parrez erantzun dizu: «Jakiña». Eta bereala aterako dizkizu liburu zoragarriak alemanez, Kataluña'ko artea dalata, edo beste kolorezko liburu dotoreak Kataluña'ko paizajeak eta erriak aipatuz...

Non daude euskal propaganda? Maitatzeko ienbizi ezagutu: Norx ezagutzen gaitu euskaldunok...?

Azkie zanaren ardi galduak

J. SAN MARTIN

Aurten betetzen dira eun urte Azkie jako zala. Bere goramenak ageratu ziran ZERUKO ARGIA 76 eta 78 zenbukieta, eta nere gogoa ezta oraingan bere bisitza edo laneri buruzkoa, idazki au bere oroitzaz badakari ere.

Azkueren zenbat lan, aspalditik aituak zeudenak, makinatubak kostatu zait banan-banan au eta emen arkitzea, artalde sakabanatuaren ardi galduak balira bezela.

Zerbaiz jakin naiz mugitzen ninduan bearrezko iduritzen zaizkidan liburu garesti aien atzetik. Liburu garestiak izan ere, billatzea aibeste kostatu zitzaidan aiek. Donostia eta Bilboko bibliotekak orren urrutu itatearren, bearrezko nuen Azkueren zenbat liburu jakingarriekin jabetzea.

Orduan, ames bat uste nuen Itzegiaren bi tomoak arkitzea eta Euskalerrriaren Jakintza-ren lenengo liburua, aitia, nekez arkitu nuen Madrilo Marroles liburu-dendan. Ura osatu ondoren, Morfologia vasca men beste ardi galdu estimagarri bat edonudik arkitu bear nuen. 1955-garren urteko otsallean, Antonio Guzmán-ek, Madrildik au ere, korreoaz bidaltu zidan. Aurreko orri batean, Azkie beraren letraz, eskintza zuen: «A mi carísimo amigo Pepín Villalonga, jefe de la Acción Jurídica del Instituto Internacional de Cooperación Intelectual. Resurrección María de Azkie. Bilbao, 28-X-1965». Nunbait, «carísimo amigo» aren ondorengo batek merke saildu zuan. Au izaten da azketerako liburu burubidea.

Baia, dana dala, Morfologia etxean neukan. Nere esparruan.

Astieran, zer pentzatu bear nuan, bila nenbillen ardi galdu aien bidez Azkie bera urrago arkitu bear nuela bere pena eta pozen sentipenez. Baiña, orrela zan. Liburu bakoitza mezu berri bat ekarren.

Euskal izkindea, gasterik egin zuan pekatu artatik (berak orrela airtorta) asi eta Itzegiaren bi tomoak arte, urteko eraman nituan ardi galduak bilzen.

Bearrezkoenekin jabetu nintzean, nerekautan esan nuen, orain ezkeroz, aibeste ardi galdu batu ondoren, bilketaren irudigarri besterik ez bada ere, Ardi galdua izeneko nobela ere arkitu bear det. Azkie-ren literatura era geiagi etsegin ez banuen ere, merezi zuan. Nere

esparrura sartu nuan artalde aretan, ez zan itxura Ardi galdua falta izatea.

Zorioneko azken «ardi galduak», era bitatik, egun batean Manterola liburu-dendako baztertxo batean egoan «beekal» balego bezela. Ta, ezin ba utzi. Artu ta esparrura eraman nuen, bere artaldeari alkartzera.

Egun batzuetara, irakurtzeko artu nunean, oartu nintzan Jose Maria Zuasti Leaburu-ko erretoreari eskemina zegoala 1918-garren urtean. Beste zenbat ardi galduak bezela, arek ere bazuan bere ugazaberen markia. Baiña gero, irakurtzen niarduala, orribate batean korreoazko txartel bat arkitu nuen Azkie Zuastiri egina, ardiaren kaparra balitza bezela, eta au jartzen zuan:

« + Bilbotik, 31-XII-1918.

Adiskide maitea: Zure eskutitza artu nuen. Egunean berean bidali nitzizun 200 Ardi... (artalde osoa). Mila esker. Peseta binan saltzen ditugu edo, zeatago, ezitugu saltzen. Eziet mor nere ondoan salerozle — sudurdunik. Nerua, nerongez, usia naiz oneloko guzotarako. Eziet, Bilbon izan ezik, inun saltzen jarri. Donostian ta beste uri anditxoetan norbaiz baliz, eineko onenbesteko bat duela, zeregin au artu ni lukera, ni pozik eta lasai. Gorantxat aundiak eta ugari Ezta baliotari. Beste orrelako zenbaiz darabilt esku-artean. Udarte gaitz izango da ni orreruntz joan al izatea. Astunen berririk eziet. Zurea. R.».

Azkie beraren eskuz idatzia da.

Bertan ematen du artalde osoaren berri eta baita euskeraren zauritzarena ere. «Mila urte igaro ta ura bere bidean...» Ori da euskeraren gaitz nagusia.

Nortzuk ote ziran Ezta balio eta Astun? Biak ote ditu onean gure literaturak? Ez nuka ezetzi esango.

Baia Azkueren aurrera jokatzeko indarra ere or agiri da. Euskeraren alorrean lanik geien egin duan gizona. Lan sakona eta zabala. Beste edonon egin balu askoz ere geiago balituko zana. Nerekin dedan, bere eskuz egindako korreo txartel onek gauza asko adierazten ditu. Pitiu estimagarri bezela dut. Beste erri batean bere mallako lana egin duan batena balitza autografozko txartel au, usko balioko zuan. Bere lanak bezela. Baiña, emengoa denez, azalean duan erregearen sellouk askoz geiago balio du filatelikarako.

Esanbierra

Aspaldi nakan gogoe, nee buru auste onen geien norbethekin itzelitheko, nee etrebentzi betek inyerra amanduko, Zeruko Argiaren orri hartarrentzatien atiazteko, esanbierrau argitzea.

Nee etzien aithe ta ama, akin Echarri Aranazko legea, itzethendiau auskera, errestaus aundiakin. Kallen beis Gipuzkoa-rak bezela poteki xamar konponitzen neg.

Eta emen astende kontubek, ni alee itxuren, beye nee ama lotatu ethenda, beak be uslien zakarretako dakan auskerot itzelithe; (zakarra beak baño gutxiyo dakibienak esatendebela) astenda bere uesteko auskera politherekin, eta emen die kentubek, ezin moldatu. nei esan eta jakin-ez nola asi, beo burubek gaubet esan nei, eta auek beate! au ezta lestarviri! Aurral bel, txikiteli lakusi neidana dena Eskuebe, beye sarraut utzizyegon bakten, nelko eindebe.

Guk gaitzlok lana einbieru dakau gesi, txarki doona anrri jartzen, beye guazzen geldi geldi, iryiek bezela zuzen artutako bideti segi, ezdeatun jelter einbierri-kin, gauzek geyo natsu deen beo.

GOSI-TAR JOXEBA